

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Izapideak arautzea egoitza zentroen erabiltzaileek Eusko Legebiltzarrerako 2020ko uztailaren 12ko hauteskundeetan posta bidezko botoa emateko

Lehendakariaren maiatzaren 18ko 11/2020 Dekretuaren bidez, 2020ko uztailaren 12an Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egiteko deia egin da .

Indarrean dagoen araudiaren arabera, posta bidezko botoa eska daiteke Hauteskunde Batzorde Zentralak horretarako ezarritako epean, hau da, uztailaren 2an; nolahi ere, luzatu egin ahal izango da. Zehazki, gaixotasunagatik edo ezintasunagatik posta bidezko botoa zuzenean eskatu ezin duten hautesleek eskaera notarioaren bidez baimendutako beste pertsona baten bidez egiteko duten aukera arautzen da. Horretarako, mediku-ziurtagiri ofiziala eta doakoa aurkeztu beharko da. Ahalorde hori emateko, notarioak ezindutako hauteslearen bizilekura joaten dira, izapidea egiteko legezko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko eta dagokion ahalordea emateko.

2020ko maiatzaren 28an, 56/2020 Erabakiaren bidez, Hauteskunde Batzorde Zentralak, Correoseko langileen zein boto emaileen osasunerako eskubidea babesteko, COVID-19ren pandemiaren ondorioz gaur egun dagoen ezohiko egoeraren aurrean eta gatazkan dauden balio juridikoak haztatuz, honako hau ebatzi du:

1. HAOLoren 72.b) artikuluan aurreikusitako posta bidezko botoaren eskaerari dagokionez, onargarria da hautesleek eskaera hori modu telematikoan egin ahal izatea Correosen webgunean, sinadura elektronikoen bidez, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. eta 10. artikuluetan ezarritako bermeak betetzen badira.

Aukera horrek ez du eragozten hautesleek boto eskaera hori Correosen bulegoetan bertan egin ahal izatea.

2. HAOLoren 73.2 artikuluan arautzen den hauteskunde dokumentazioari, hain zuzen, posta bidezko botoa emateko dokumentazioa hautesleari bere etxean ematekoari dagokionez – salbuespenez, Posta Zerbitzu Unibertsala arautzen duen abenduaren 30eko 43/2010 Legearen 22.4 artikuluekin bat etorri interpretatua –, Correos-eko langileek hautesle horren nortasuna egiaztatzea beharko dute, eta NANA edo haren nortasunaren beste edozein egiaztapen ofizial erakutsi behar da. Horrez gain, agiri horren zenbakia idatzi beharko du, eta harrera pertsonal horren fedea eman, eta horretarako ez da ezinbestekoa hautesleak berak dokumentazioaren entrega sinatzea.

3. Hauteskunde agiriak entregatzeari dagokionez, HAOLoren 73.3 artikuluen babesean, Correos-eko langileak, hauteskunde dokumentazioa pertsonalki entregatzean, hautesleari proposa diezaioke hauteskundeetako gutun-azalak bete eta une horretan entregatzea –botoaren sekretuaren betekizunari kalterik egin gabe –. Gutun-azalok entregatzen baditu, botoa eman izanaren frogagiri bat emango dio langileak, geroago Correos-en bulego batera joan behar izatea saihesteko. Nolanahi ere, hautesleak eskubidea izango du une horretan botoa ez emateko eta, gero, legezko epeen barruan, Correos-en bulego batean botoa emateko.

Era berean, ekainaren 3ko 71/2020 Erabakiaren bidez, Hauteskunde Batzorde Zentralak aipatu ditu osasu agintaritzak COVID-19 pandemiaren ondorioz ezarri dituen mugikortasun murrizketek posta bidezko botoa eskatu eta izapidetzeari dagokionez sor ditzaketan zailtasunak, eta adierazi du une honetan ez duela beharrezkotzat jotzen aipatutako 56/2020 Erabakian aurreikusitakoak baino neurri gehiago ezartzea, are gehiago malgutzeko prozedura are gehiago malgutzeko HAOLon aurreikuitako posta bidezko botoaren berme prozedura.

Egoitzetan sartzeko neurri murriztaileak indarrean daudenez, erabiltzaileen bizitza, osotasuna eta osasuna babesteko, beharrezkoa da neurriak arautzea eta arbitratzea, alde batetik, erabiltzaileen botoa emateko oinarrizko eskubidea bermatzeko eta, bestetik, COVID-19 bidezko kutsadura saihesteko segurtasun neurriak hartzeko.

Hori dela eta, notarioak eta posta-zerbitzuko langileak sartzea gaitzen da egoiliarrek posta bidez botoa emateko eskubidea bete dezaten, HAOLOn eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren erabakietan xedatutakoaren arabera, bai eta eskubidea benetan baliatzeko ezinbestekoa den pertsonen kasuan ere, foru agindu honetan xedatutakoaren arabera bermearekin.

Horregatik guztiagatik eta indarreko araudiak emandako eskumenetan oinarrituta:

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Aplikazio eremua.

Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoan dauden adinekoentzako egoitza zentro publiko edo pribatuei aplikatuko zaie.

BIGARRENA. Notarioak egoitza zentroetara sartzea.

Notarioek sarbidea izatea baimentzen da, Hauteskunde araubideari buruzko Lege Organikoak hauteskundeen arloan ematen dizkien eginkizunak betetzeko. Sarbide horrek ez du ordutegi mugarik izango.

HIRUGARRENA. Correoseko langileak egoitza zentroetara sartzea.

Notarioek sarbidea izatea baimentzen da, Hauteskunde araubideari buruzko Lege Organikoak hauteskundeen arloan ematen dizkien eginkizunak betetzeko. Sarbide horrek ez du ordutegi mugarik izango.

LAUGARRENA. Lokal bat gaitzea izapideak egiteko.

Ahal den neurrian, zentro bakoitzak gune bat prestatuko du posta bidezko botoaren izapideak egiteko, boto sekretua bermatzeko. Gune hori prestatu ezin bada, izapideak erabiltzailearen gelan egingo dira.

Izapideak amaitu ondoren eta berriro erabili baino lehen, prestatutako lekua edo, hala badagokio, logela garbitu eta/edo desinfektatuko da.

BOSGARRENA. Posta bidezko botorako eskaera egitea.

Posta bidezko botoa eskatu beharko dute erabiltzaileek, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorriz, eta, hala badagokio, indarreko araudiak posta bidezko botoa eskatzeko ezartzen dituen inguruabarrak egiaztatu beharko dituzte, gaixorik edo ezinduta egonez gero.

SEIGARRENA. Sartzeko modua.

Egoitza zentroetan egin beharreko izapideei dagokienez, honako neurri hauek hartuko dira:

- Notarioek eta Correoseko langileek hori egiaztatu beharko dute egoitza zentroaren sarreran. Ahal bada, zentroari alde aurretik jakinaraziko zaio zer ordutan dagoen aurreikusita sartzea, izapideak arintzeko eta errazteko.

- Denbora horretan guztian, notarioek zein Correoseko langileek maskara eta eskularruak erabiliko dituzte.

- Zentroko langileek izapide horiek egiteko prestatu den lekura lagunduko diete. Zentro bakoitzean ezin bada leku bereizi bat prestatu posta bidezko botoaren izapideak egiteko, erabiltzailearen gelan egingo dira.

- Izapideak egitean, erabiltzailea eta notarioa edo posta zerbitzuko langileak baino ez dira egongo, salbu eta erabiltzaileak berariaz adierazten badu beste pertsona bat bertan egotea nahi duela.

- Izapideak amaitutakoan, egoitza zentroko langileek irteerara lagunduko diote notarioari edo posta langileari.

- Zentroko langileek ez dute, inola ere, botoa jasoko, eta erabiltzailearen egintza guztiz pertsonala izango da. Botoa posta zerbitzuko langileek baino ez dute jasoko, Hauteskunde Batzorde Zentralak hartutako erabakien arabera.

ZAZPIGARRENA. Neurriak aldatzea.

Neurri horiek COVID-19ren pandemiaren bilakaeraren mende daude, eta gehitu, murriztu edo baliogabetu egin daitezke, egoera epidemikoak hala eskatzen badu, edo hauteskunde batzorde eskudunen aginduak betez, Gizarte politiketako foru diputatuaren foru aginduaren bidez.

ZORTZIGARRENA. Indarraldia.

Foru agindu hau sinatzen den egunean bertan jarriko da indarrean, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere, eta botoa postaz emateko epea amaitzen den unean bukatuko zaio indarraldia.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 29a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO GERMÁN SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ